

**BERGARAKO UDALA ETA MARIAREN LAGUNDIA IKASTOLAREN ARTEKO  
HITZARMENA**

**Bergaran, 2024ko martxoaren 4an**


**BILDU DIRA**

Alde batetik, Gorka Artola alberdi jauna, Bergarako alkatea, Bergarako Udalaren ordezkarietan, Idazkariaren, M<sup>a</sup> Concepcion Ugalde Iceta andrearen laguntzaz, egintzaren fede ematen duena.

Bestetik, Nagore Murua Uria andrea, 15390732Y NAN zenbakidunak, Bergarako Mariaren Lagundia ikastolako zuzendaria, Mariaren Lagundia ikastolaren ordezkarietan (IFZ: R2000181D).

Azken horrek hitzarmena izenpetu eta diru-laguntza jasotzeko gaitasuna duela eta, gai honekiko indarrean dauden xedapenek zehazten dituzten bateraezintasun eta ezgaitasun arazorik ez duela aitortu ondoren, elkar behartzeko legezko gaitasuna aitortzen diote elkarri, honako aurrekariak azalduz

**ADIERAZI DUTE**

- 
1. Bergarako Udala kezkatuta dagoela hirugarren adinekoen artean dagoen zaugarritasun eta bakardade egoeren aurrean.
  2. Bergarako Udalak egoera hauei aurre egiteko neurriak hartu nahi dituela.
  3. Mariaren Lagundia ikastolak udalak hirugarren adinarekiko duen kezka konpartitzen duela eta eskaintzen duen gizarteratzeko lanbide heziketako zikloaren barruan gai honen lanketa egitea aproposa dela.
  4. Erakunde biak lankidetzan Bergarako hirugarren adinekoen laguntza sare bat sortuko dela eta egindako diagnostikotik eratorritako bakardade egoerei aurre egiteko proiektu zehatzak landuko direla. Kontuan izan behar da Mariaren Lagundia dela herri mailan gizarte arloko lanbide heziketa zikloak eskaintzen dituen ikastetxe bakarra, "mendekotasuna" eta "gizarte integrazioa" zikloak eskaintzen dituelarik.
  5. Alkateak 2024ko martxoaren 1ean emandako Dekretu baten bitartez erabaki dela 2023/2024 ikasturterako proiektu hau gauzatzeko 12.000 euroko diru-laguntza ematea Mariaren Lagundia ikastolari eta bi aldeen betebeharrak hitzarmen batean jasotzea.

Hori dela eta, ondorengo klausulak dituen hitzarmena hitzartu dute

**KLAUSULAK**

**LEHENENGOA:** Mariaren Lagundia ikastolak ondoren jasotakoa betetzeko konpromisoa hartzen du:

- 1.- "Begarako adindunak erdigunean" proiektua gauzatzeko pertsona bat izendatuko du eta horren berri emango dio udalari.



Begarako  
Udala

2.- Adineko pertonekin **laguntza sarea sortuko du**, eta inplikaturako pertsona eta eragileen artean gizarte kohesioa sustatuko du, beti ere belaunaldien arteko ikuspegitik.

3.- Aurreko ikasturtean egindako diagnostikoan antzemandako hutsuneei aurre egiteko ondorengoak gauzatu ditu:

- Diagnostikoan parte hartu ez duten profileko kolektiboetara gerturatu eta hauen parte hartzea lortu.
  - Bergaran dauden eragileen irismena aztertu.
  - Adineko pertsona gehiagorengana gerturatzeko proposamen bat landu, profilean lehenetsiak zehaztuz: adina, generoa edota kokapena adibidez.
  - Gerturatzearen planteamendua egin.
  - Gerturatze estrategiak Bergarako eragileei ere aurkeztu.
- Diagnostikotik eratorritako bakardade egoerei erantzun zuzena emateko proiektuak:
  - Irrati saioak. Guztira 4 egingo dira gutxienez.
  - Irratsaioak antolatze aldera, talde motor bat eratuko da. Talde motorraren parte hartzaileak belaunaldi ezberdinetako pertsonak izango dira. Talde motorraren maiztasuna hilean behineroa izango da.
  - Foro edo kafe tertuliak antolatuko dira, talde motorrak elikatuko duen irratsaioari begira bideratutakoak izango dira, hauek ere belaunaldi artekoak izango dira. Guztira 5 bilera egingo dira gutxienez. Bergaran eta komunitatean dauden adinekoen eragileekin elkarlana sortu eta elikatuko da: Goienagusi, San Joxepe, Duintasuna, Adineko Pertsonen Kontseilua eta Ikastola.

4.- Bergarako udalarekiko dokumentazio eta komunikazio guztiak euskara hutsean izango dira. Herritarrekiko komunikazio orokorrak euskaraz eta gaztelaniaz baina euskarari lehenetsia emanez. Eta norbanakoei banaka zuzentzean bakoitzak hautatzen duen hizkuntzan baina euskaraz izatea bultzatuko da.

5.- Proiektua aurrera eramateko pertsonal guztiaren gastua eta hauen erantzukizuna Mariaren Lagundia ikastolaren gain joango da.

6.- Ekintzaren gaineko zabalkunde oharretan Bergarako Udalarekin lankidetzan egindako proiektua dela adieraziko du (bai logoak erabiliz bai ahozko eta idatzizko komunikazioetan).

7.- Udalak egin ditzakeen ikuskapenak erraztuko ditu.

**BIGARRENA:** Bergarako Udalak, berriz ondorengoa betetzeko konpromisoa hartzen du:

1.- Bergarako Mariaren Lagundia ikastolari 12.000 euroko diru-laguntza ematea. Ordainketa bi zatitan egingo da:

-1. zatia: hitzarmena sinatutakoan %40, 4.800€.

-2. zatia: gainontzeko %60a, 7.200€, ekintzaren memoria, balantze ekonomikoa eta gastuen zuriitze-agiriak aurkeztu eta ontzat emandakoan ordainduko da, beti ere 2024ko irailaren 1a baino lehen.

**HIRUGARRENA:** Mariaren Lagundiak honako baldintzak ere bete betetzeko konpromisoa hartzen du:

a) Dirulaguntza ematea oinarritu duen helburua betetzea, proiektua betearaztea, ekintza gauzatzea edo jokabidea hartzea.





**Bergarako  
Udala**

- b) Dirulaguntza eman duen organoari honako hauek justifikatzea: betebeharrak eta baldintzak bete izana, ekintza gauzatu izana eta dirulaguntza jaso edo erabiltzearen helburua bete izana.
- c) Dirulaguntza ematen duen organoak eta eskuduntza izendaturik duten estatuko nahiz erkidegoko kontrol-organoei egin ditzaketen egiaztatze-jardunak eta finantza-kontrolak onartzea; bai eta aurreko jardunak burutzeko errekeritutako informazioa ematea ere.
- d) Dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea diruz lagundutako ekintzak finantzatzen dituzten beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo bitarteko batzuk lortu izana. Jakinarazpena, horien berri izan eta berehala egin beharko da, eta, edozelan ere, fondoei emandako erabilpena justifikatu baino lehen.
- e) Ogasunekiko betebeharretan eta Gizarte Segurantzakoetan egunean egotea. Halaber, Bergarako Udalarekin inongo motatako zorrik ez izatea eta betebeharrak fiskaletan, zergatan eta zergaz aparte tasetan eta prezio publikoen ordainetan egunean egotea. Bergarako Udalak ofizios egiaztatuko du elkarteak Bergarako Udalarekin egunean dagoela.
- f) Jasotako fondoak zertan erabili diren egiaztatzeko dokumentuak gordetzea, gutxienez sei urtez, bai eta dokumentu elektronikoak ere, egiaztatze eta kontrol jardunak burutu daitezzen.
- g) Jasotako fondoak itzultzea oinarri hauetan aurreikusitako kasuetan edota indarrean dagoen gainontzeko legediak jasotzen dituen kasuetan.
- h) Diruz lagundutako jarduerak garatzeko behar beste baimen lortzea, eta baimenon xedapenak betetzea.
- i) Jardueraren garapenari buruzko informazioa ematea, udalaren aldetik jarraipena egin edo laguntzeko.
- j) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein gorabehera aldatuz gero, dirulaguntza eman duen organoari jakinaraztea.
- k) Neurriak hartzea diruz lagundutako ekintzen berri emateko, eta horietan adierazi beharko da Bergarako Udalak diruz lagundu duela.
- l) Ateratako eskuorri, kartel, sare sozialetan edo bestelako publizitate euskarrietan, Bergarako Udalak diruz lagundu duela adierazi beharko da. Halaber, aurkezpen edo prentsaurrekoak egiten baditu, Bergarako Udalarik gonbidapena egingo dio.

Gainera, baldintza hauek bete beharko dituzte:

— Euskararen erabileraren inguruan: Dirulaguntza hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da, gutxienez, euskara erabiltzea ekitaldi eta idatzizko komunikazio publikoetan: iragarki, ohar eta abar.

Ahozko komunikazioetan, bi hizkuntzak erabiliz gero, euskarari emango zaio lehentasuna, euskarazko aurkezpena erdarazkoaren aurretik eginez.

Era berean, idatzizko komunikazio elebidunetan ere, euskarari emango zaio lehentasuna, bai kokalekuaren aldetik (euskarazkoa erdarazkoaren gainean), bai neurriaren aldetik. Testuak, hizkuntza aldetik, zuzen idatziak daudela egiaztatzeko, Euskara Zerbitzura eraman ahalko dira.

Antolatzen dituzten jarduerak (ikastaro, hitzaldi, entrenamendu eta era guztietako ekitaldiak...) euskaraz izatea bultzatuko da, bereziki gazteei bideratuak direnean, eskolako irakaskuntzaren osagarri izan daitezzen.

— Gizonen eta emakumeen arteko berdintasunari buruz:





Bergarako  
Udala

1.- Bete egin beharko ditu 1/2023 Legegintzako Dekretua –martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistarik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena– eta 3/2007 Lege Organikoa –Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa–.

2.- Udalak markatutako irizpideak jarraitu beharko ditu elkarteak. Beraz, jarduera, proiektu edo programarekin lotutako iragarki eta komunikazioetan ez da erabiliko ez hizkera ez irudi sexistarik, estereotipo eta rolak alde batera utziz. Era berean, ezingo da diskriminatu sexu-arrazoiengatik. Eta emakumeen presentzia eta parte hartzea eremu guztietan ahalbidetuko da (zuzendaritzan, bazkideen artean, erabiltzaileen artean eta abarretan).

Edozein sari-mota emateko sortzen diren hautaketa-epaimahaietan trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkartza orekatua bermatuko da. Ordezkaritza orekatua izango da lau kide baino gehiago dituzten epaimahaietan sexu bakoitzak gutxienez % 40ko ordezkartza izatea.

— Adikzioen prebentzioari dagokionez, diru-laguntza hauek jasotzeko ezinbestekoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Adikzioen 1/2016 Legeak edari alkoholdunen publizitatea, sustapena, banaketa eta kontsumoa mugatzeko neurriak betetzea, bereziki bere jarduna adingabeei zuzendutakoa denean. Horrelako neurriak ere hartu beharko dira tabakoaren adikzioa prebenitzeko.

3.- Sexuaren aldagaia, sistematikoki txertatzea egiten diren estatistika, inkesta eta datu bilketa guztietan, bai eta udalari aurkeztu beharreko txostenetan.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra aplikatuz, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen Zortzigarren Xedapen Gehigarria aplikatuz eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, diru-laguntza hau kudeatzeko ez da beharrezkoa izango interesdunaren baimena, eta Udalak bere eskumenak erabiliz datuen zehaztasuna egiaztatzeke behar beste egiaztapen egin ahal izango du, bai eta bere esku dauden edo beste edozein administrazioek egin dituen dokumentuak kontsultatu eta eskuratu ere.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeke, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunei:

- Zerga-betebeharrak egunean izatea.

-Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorrari (GSDO):

- GSDOrekiko obligazioen ordainketan egunean egotea

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateke behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.

- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.





Begarako  
Udala

**LAUGARRENA:** Hitzarmen honen iraupena 2023ko irailean hasi eta 2024ko irailaren 1ean bukatuko da.

**BOSGARRENA:** Udalak emango duen diru-laguntzaz gain helburu bera duen beste edozein diru-laguntza ere jaso ahal izango da.

Hala eta guztiz ere, diru-laguntzak (Udalarenak bakarrik edo beste batzuenekin batuta) ezingo du inola ere gainditu diruz laguntzen den jardueraren kostua.

**SEIGARRENA:** Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetakoren bat aldatuko balitz edo, Udalaren laguntzaz gain, beste administrazio batek edo entitate pribatu edo publiko batek emandakoa jasoko balitz, gerta liteke emandako kopurua proportzio berean aldatzea.

**ZAZPIGARRENA:** Diru-laguntza berrikusi egingo da eta, egoki bada, kendu, baldin eta hauetakoren bat gertatzen bada:

- a) Diru-laguntza bete beharreko baldintzak bete gabe jasotzea.
- b) Diru-laguntza erabiltzea lortu beharreko helburua ez den beste helburu baterako.

Edozein arrazoiengatik, diru-laguntza (osoa edo zati bat) itzuli beharra balego, diru kopuru hori zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko da.

**ZORTZIGARRENA:** 2024ko azaroaren 30a baino lehen, bukaerako memoria aurkeztu beharko du Mariaren Lagundia ikastolak, memoria honen edukia ondorengo izango da gutxienez:

- Dirulaguntza ordaintzeko eskabidea, udaleko eskabide orokorra erabilita.
- Prozesuaren azalpena.
- Sortutako laguntza sarearen ezaugarriak:
  - Partaide kopurua: adinaren, generoaren eta auzoaren arabera banatuta.
  - Gerturatze estrategia eta ekintzen azalpena.

-Irratsaioak formatu digitalean.

-Foro eta/edo kafe tertulien aktak ahal dela partaideen argazkiekin lagunduta.

-Arlo ekonomikoa: izandako diru sarrera eta gastuak jasoko ditu, baita udalak diruz laguntzen duen diru kopuruaren besteko ziurtagiriak ere (fakturak edo nomina agiriak), eta beste dirulaguntzarik ez badu jaso zinpeko aitorpena.

Halaber, Udalak ofizios egiaztatuko du Bergarako Udalarekiko ordainketak egunean dituela eta jarduera burutu ahal izateko Bergarako udalarekiko betebeharrak guztiak betetzen dituela.

Baldintzak edo betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko, Bergarako Udalak honako kontsulta hauek egingo dizkie beste administrazio batzuei:

- Foru Ogasunak:
  - Zerga-betebeharrak egunean izatea.
- Gizarte Segurantzak:
  - Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean egotea.



Bergarako  
Udala

Interesdunak era arrazoituan bere datuak kontsultatzearen aurka egiten badu, dirulaguntza izapidetu ahal izateko behar den dokumentazio guztia aurkeztu beharko du. Hala badagokio, honako dokumentu hauek aurkeztu beharko dira:

- Dagokion Foru Ogasunaren ziurtagiria, zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duena.
- Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela egiaztatzen duten Gizarte Segurantzaren ziurtagiriak.

Justifikatutako gastuak diruz lagundutako kopurua baino txikiagoak badira, diru-laguntza proportzio berdinean gutxituko da. Mariaren Lagundia ikastolak diferentzia itzuli beharko dio Udalari Udalak zehaztutako epean.

Egindako gastuak berriz, aurkeztutako aurrekontuan jasotakoak baino handiagoak badira, Udalak onartutakoa baino diru-laguntza gehiago ez du emango.

Zuritzeko betebeharra ez betetzeak edo behar bezala ez justifikatzeak berekin ekarriko du dirulaguntza itzultzea.

**BEDERATZIGARRENA:** Ez da beharrezkoa ikusten berme bat eskatzea ez baita arriskurik aurreikusten hitzarmen honetan jasotako betebeharrak ez betetzeko.

**HAMARGARRENA:** Izaera pertsonaleko datuen babesa.

Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak bete egiten dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak goitik behera onartzen dituela.

Sinatzen duenak deklaratu du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela, ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Aldi berean, izenpetzen duenak adierazten du Bergarako Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak bere onespenez eman dizkiola eta datu horiei tratamendua emateko baietza ematen duela.

Informazioaren tratamenduak kontuan hartuko du Datu Pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoan ezarritakoa eta aplikagarri diren gainerako xedapenak.

**HAMAIKAGARRENA:** Egintza honek lankidetzeta-hitzarmen izaera dauka. Hitzarmenean berariaz jaso gabe dauden kasuetarako, ondorengoak izango dira arau:

- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoarena.
- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa
- Toki Jardunbideari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea;
- 1/2023 Legegintzako Dekretuak (martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen Aurkako Indarkeria Matxistatik Gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duena.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.



**Begarako  
Udala**

**HAMABIGARRENA:** Hitzarmen honetatik auzigaiak sortzen badira, hitzarmenak berak izaera juridiko-administratiboa duenez, administrazioarekiko auzietarako jurisdikzio-ordenaren menpe geratuko dira.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, goian aipatutako toki eta egunean bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute. hitzarmen hau nire aurrean sinatu dute, nik, behin-behineko Idazkariak, egiaztatzen dudalarik.

**Begarako alkatea**

**Gorka Artola Alberdi**



**Begarako Mariaren Lagundia  
Ikastolako zuzendaria**

**Nagore Murua Uria**



**Idazkaria**

**Maria Concepcion Ugalde Izeta**

